

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

14205 7/2020 Legea, azaroaren 13koa, Finantza Sistemaren Transformazio Digitalerakoa.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

I

Ekonomiaren transformazio digitalak, finantza-sektorearenak batez ere, egiturazko aldaketa bat ekarri du, hala arrazoi teknologikoek bultzatua, nola herritarrek eta enpresek egiten duten zerbitzu-eskarian izandako aldaketek bultzatua. Konputazio-ahalmenaren gehikuntza, informazioaren digitalizazioa, Internetek ekarritako konektagarritasun globala, datuak biltegitratzeko kostu marjinal txikia eta datu horiek tratatzeko ahalmenean emandako aurrerapausoak bide ematen ari dira ondasunen eta zerbitzuen produkzioa, merkaturatzea eta banaketa sakonki aldatzeko ekonomian.

Finantza-sektorean, zehazki, teknologia berriek onurak ekartzen dizkiete finantza-zerbitzuen hornitzaileari eta erabiltzaileei. Era berean, ematen diren zerbitzuen kopurua igotzen ari da eta haien kalitatea areagotzen; eta eskaintza eskariaren presiora egokitzen ari da: malgutasuna, arintasuna, efizientzia, eta zerbitzuak nahieran eta edozein euskarritan (batez ere, gailu mugikorretan), horiek guztiak eskatzen dira. Teknologia berriek lagundu dezakete informazio-asimetriak gutxitzen eta ekonomian arriskuak hobeto banatzen, baita automatizazioaren bidez eta gainbegiratzeko lana hobetuz ere finantza-sektorean. Alde horretatik, gero eta gehiago erabiltzen diren hitz batzuek erakusten dute agente berriak agertzearekin batera oinarritako aldaketak zer aurrerapauso eragiten ari diren produkzio-prozesuan, bezeroekiko harremanean, negozio-ereduetan eta sektorearen egituran bertan (horra hor *fintech*, *insurtech* eta *regtech* terminoak, finantza-jarduerari oro har, asegurugintzari eta teknologia berriak helburu arautzaileekin erabiltzeari buruzkoak).

Agintari publikoen ikuspegitik, teknologia berriek eta horietan oinarritutako negozio-ereduek bultzatutako aldaketa lasterrak, lehenik eta behin, teknologietara egokitzeko erronka dakar, baina baita erronka funtsezkoago bat ere: finantza-politikak bermatu behar du finantza-arloari aplikatutako berrikuntza segurua dela eta gizarte osoari mesede egiten diola. Kontua da finantzaketa errazago eskuratu ahal izatea, hura ekonomiaren motorra den aldetik, eta ziurtatzea transformazio digitalak ez diela inola ere kalte egiten finantza-zerbitzuen kontsumitzailearen babesari, finantza-egonkortasunari eta merkatuen osotasunari eta ez duela biderik ematen finantza-sistema kapitalak zurrizteko eta terrorismoa finantzatzeko asmoarekin erabiltzeko. Horretaz gainera, ziurtatu behar da transformazio digitalak indartu egingo duela finantza-sistema osoak ekonomia produktiboa eta gizarte- eta lurralde-kohesioa sustatzeko duen gaitasuna, pertsona guztien aukeraberdintasuna bermatuz, haien egoera ekonomikoa eta bizilekua edozein izanda ere. Azkenik, garrantzi bereziko da kontuan hartzea transformazio digitalak zer dakarren, zerbait baldin badakar, finantza-helburuei eta erronka demografikoei dagokienez eta erabiltzaileek beren datuak erabiltzeari dagokienez.

Lege honetako neurrien bidez, azken batean, bi helburu nagusitara begira jarri nahi da finantza-sistemaren transformazio digitala, eta hara bideratu. Lehenengo helburua hau

bermatzea da: finantza-agintariek tresna egokiak izatea beren zereginak modurik onenean betetzen jarrai dezaten egoera digital berrian. Bigarrena, berriz, prozesu berritzailea erraztea da, garapen bidezkoago bat lortzeko, produkzio-sektoreen finantzaketarako aukera hobetuz eta talentua eskuratuz nazioarteko eta lehia handiko ingurune teknologikoan.

II

Helburu horiek I. tituluan zehazten dira. Titulu horretan, halaber, kontzeptu nagusiak definitzen dira, eta argitzen da lege honek ez duela aldatuko agintaritzen arteko eskumen-banaketaren egungo esparrua, baina banaketa horrek ezin izango du eragotzi agintaritza haiek guztiak lankidetzan aritzea testuinguru digital berriaren barruan, finantza-politikaren printzipioak behar bezala betetzeko.

II. titulua legearen erdigunea da. Izan ere, proben gune kontrolatua arautzen du, hau da, Europan eta nazioartean *regulatory sandbox* esaten zaiona baina berezko ezaugarriak dituen. Xedapen multzo bat da, babesa ematen duena finantza-sisteman aplika daitekeen oinarri teknologikoko finantza-berrikuntza bat ekar dezakeen proiektu baten barruan probak egiteko modu kontrolatu eta mugatua. Horretan, hau hartzen da finantza-berrikuntzat: finantza-merkatuetan eragina duten negozio-eredu, aplikazio, prozesu edo produktu berriak ekar ditzakeena, era guztietako finantza-zerbitzuak eta zerbitzu osagarriak ematea ekar dezakeena edo finantza-esparruko funtzio publikoak betetzea eragin dezakeena. Definizio hori Finantza Egonkortasunerako Kontseilu edo Financial Stability Board delakoaren esparruan onartutakoaren ondorio da (nazioarteko erakunde horren eginkizuna finantza-egonkortasuna begiratzea da), eta Bankuen Ikuskapenari buruzko Basileako Batzordeak ere jaso du.

Proben esparruan, hiru alderdi dira giltzarriak: gune kontrolatu bat da; gainbegiratzeko tresna bat da, eta lege-protokolo eskema batek arautzen du.

Lehenik eta behin, elementu nagusi gisa, gune kontrolatu bat da, hau da, parte-hartzaileentzat eta finantza-sistema osoarentzat segurua izan behar duen gune bat, non arrisku potentzialak behar bezala arindu edo ezabatu diren. Titulu honetan arautzen den proben gune kontrolatura sartzeak edo proiektu pilotu baten barruan probak egiteak ez du inola ere esan nahi jarduera bat hasteko edo finantza-zerbitzu profesionalak emateko baimena ematen denik. Ondorioz, proiektu pilotuak eta proiektu horien barruan proposatutako probak ez daude finantza-zerbitzuei aplikatu beharreko legedi espezifikoaren mende, eta, betiere, lege honetan eta dagokien protokoloan xedatutakoa bete beharko dute.

Nolanahi ere, proben gune kontrolatuan parte hartzeko, beharrezkoa da politika publikoaren helburuak erabat bermatzea oso sentiberak diren hiru eremutan: datu pertsonalen babesa, finantza-zerbitzuen erabiltzaileen babesa eta kapitalen zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioa. Hiru eremu horietako bakoitzean identifikatutako ondasun juridikoak guztiz babestuta geratu behar dira, hartutako arriskua apaltzeko edo ezabatzeko, probetan parte hartzen dutenei batere kalterik ez egiteko konpentsazio-neurriak ezarriz, babes osoa behar duten beste sektore-eremu batzuetan dagoeneko aurreikusita dagoenaren antzeko eskemari jarraituz, zeinetatik saiakuntza klinikoei buruz indarrean dagoen legedia baita adibide paradigmaticoa. Hark osasun publikoaren kalitatea handitu nahi du, berrikuntzaren eta ikerketaren aukerei esker, pazienteentzako inolako babesgabetasunik sortu gabe, alderantziz baizik, tratamendu eta botika kaltegarriak saihesteko ezinbesteko mekanismoa izan dadin, eta, oro har, berrikuntza interes nagusiaren zerbitzura jar dadin, hau da, hobeto sendatzearen zerbitzura. Era berean, proben esparrua agintari arduradunek kontrolatutako gune bat izango da, finantzaketa eskuratzen eta oraingo araudia hobetzen laguntzea daukana azken batean helburutzat, finantzaketa ekonomiaren eragilea den aldetik.

Horregatik, lege honetan araututako proben gune kontrolatuaren funtsezko bigarren elementua tresna arautzaile eta gainbegirale gisa duen garrantzia da. Izan ere, tresna horri esker, jakin ahal izango da transformazio digitalak finantza-zerbitzuen prestazioan eta finantza-sistemaren barruan babestu beharreko ondasunetan zer garapen duen eta zer

ondorio ekar ditzakeen, bereziki erabiltzaileen babesean eta finantza-egonkortasunean. Gune kontrolatuak, legegileei eta gainbegiraleei beren lana hobeto betetzeko erraztasunak emanda, aukera emango du oinarri teknologikoko finantza-berrikuntzak hobeto ezagutzeko, eta, horri esker, agintariak egokiera hobea izango dute transformazio digitalak berekin dakarren guztia ulertzeko, besteak beste Finantza Egonkortasunerako Kontseiluak esan duen bezala, baina, horretaz gainera, ezartzen den unetik bertatik, lagundu beharko du indarrean dagoen legedia betetzen al den hobeto kontrolatzen.

Hirugarren funtsezko elementua, azkenik, proben gune kontrolatuari aplikatuko zaion arau-esparrua da, lege honetan gune horri buruz jasotako aurreikuspenek eta proben protokolo batek osatua: lege honek araubide orokorra ezartzen du, lege-mailako arauetan jaso behar diren eta gunea segurua dela bermatzen duten eskubideak eta betebeharrak barnean hartuta; proben protokoloak, berriz, proba bakoitza gauzatzeko araubide zehatza biltzen du, eta proiektuaren sustatzaileek eta proben jarraipenaz arduratuko diren agintariak sinatuko dute.

Ezaugarri horiek ez ezik, proben gune kontrolatuaren funtzionamenduari buruzko xehetasunak ere aipatu behar dira. Horretarako, II. titulua hiru kapitulutan banatu da. Kapitulu horiek gune kontrolatuan probak egiteko prozesuaren uneei buruzkoak dira, hau da, sarrera-araubideari, proiektuak garatu eta probak egin bitarteko berme-araubideari eta, azkenik, irteera-araubideari eta probak amaitu ondorengo ondorioen araubideari buruzkoak.

Sarrera-araubideari dagokionez, I. kapituluan, finantza-leihatila bakarrek sistema bat ezartzen da, enpresa teknologikoen, finantza-entitateek, ikerketa-zentroek edo interesa duen beste edozein sustatzailek proiektuak aurkez ditzaten. Proiektuek oniritzia jaso ahal izango dute, behar bezain aurreratuta badaude, eta balio erantsia ekar badezakete alderdi hauetan, besteak beste: araudia hobeto betetzea, bezeroak babesteko tresnak hobetzea eta finantza-zerbitzuen efizientzia areagotzea eta haien prestazioa hobetzea. Aurretiazko ebaluazio horren ondoren, gainbegiraleek eta sustatzaileak proben garapenari buruzko protokolo bat sinatuko dute. Protokolo horretan, proben xehetasunak jasoko dira, eta, bereziki, haien iraupena eta irismena, mugatuta. Protokoloa sinatu ondoren, hasi ahal izango dira probak, II. kapituluan aurreikusitako bermeak izanez gero.

Probak egiten diren bitartean parte-hartzaileek izango duten berme- eta babes-araubideari dagokionez (II. kapitulua), zazpi kautela nagusi ezartzen dira, benetako erabiltzaileek parte hartzen duten probetarako batez ere: adostasun informatua eta datu pertsonalen babesa; atzera egiteko eskubidea; sustatzailearen erantzukizuna; sustatzailearen erantzukizuna estaltzen duten bermeak; konfidentzialtasuna; probek irau arteko gainbegiratze-lana, eta, azkenik, praktika txarra denean, legedia edo protokoloa betetzen ez denean eta beste kasu batzuetan probak eteteko aukera.

Irteera-araubideari dagokionez, III. kapituluan bi elementu jasotzen dira. Lehenik, emaitzen azterketa. Hori proben sustatzaileak egingo du, eta proben jarraipena egin duten agintariak bidaliko zaien txosten batean sartuko da. Bigarrenik, jardueran hasteko bide bat aurreikusten da, eskatzen diren legezko eta arauzko izapideak arintzea dakarrena, gero lanbide-jardueran aritzeko lizentzia edo baimena behar izanez gero. Zehazki, prozeduraren epeak laburtzeko aukera ezartzen da, arintzea interes publikokoa den heinean. Izapideak arindu egingo dira, bakar-bakarrik, baimena behar duen jarduera probatutako teknologiaren eta negozio-ereduaren bidez egin nahi bada nagusiki, eta baimena emateko eskumena duten agintari publikoek uste badute probak egiteak aukera ematen duela azterketa errazagoa baina era berean zorrotza egiteko baimen horretarako eskatzen diren baldintzak betetzeari dagokionez.

III.

III. tituluak beste neurri batzuk biltzen ditu. Lehenik eta behin, finantza-arloko agintaritza publikoen jarduketetan proportzionaltasun-printzipioa aplikatzeko aurreikuspen espezifikoak jasotzen dira. Zehazki, proben gune kontrolatuaren funtzionamendutik ikasitakoa finantza-legedi osoaren oinarri izatea aurreikusten da, transformazio digitalaren testuinguruan jarduerak, arriskuak eta erregulazioa uztartzean hobeto kalibratzeko

beharrari dagokionez bereziki, arlo horretako nazioarteko erakunde nagusiek adierazi duten bezala. Horri dagokionez, ezinbestekoa da baldintza berak bermatzea jarduera bera egiten duten bitartekari guztientzat.

Bigarrenik, kontrol-agintaritzekin zuzenean komunikatzeko kanal bat aurreikusten da, berritzaileei konfiantza emango diena eta funtzio publikoetan gardentasuna ekarriko duena.

Hirugarrenik, bide bat zabaltzen da erregulazioaren alderdiei buruz kontsulta idatziak egiteko, bai eta probak egitean sortzen diren beste alderdi batzuei buruzkoak egiteko ere, dela ulertzeko zailtasunagatik dela aplikazioaren zentzuari aurrea hartzeko zailtasunagatik finantza-eragileentzat sarrera tratatzen dutenei edo arauen hartzaileengan ziurgabetasuna sortzen dutenei buruzkoak. Europar maila anitzeko ordenamendu juridiko konplexu bat dagoenez, gomendagarria da kontratu-harremanetan segurtasun juridikoa hobetzen lagunduko duen tresna bat sartzea finantza-zerbitzuak transformazio digitalaren testuinguruan arautzeari dagokionez.

IV.

II. tituluan (proben gune kontrolatua) eta III. tituluan (proportzionaltasuna, zuzeneko komunikazio-kanala eta kontsultak), mekanismo batzuk aurreikusten dira finantza-politikaren helburuak zaintzeko eta helburu horiek sendotzen lagunduko duen berrikuntza errazteko; IV. titulua bestelakoa da, eta erakundeei buruzko xedapenen eta kontuak emateko aurreikuspenen multzo bat jasotzen du. Multzo horretan, agintarien arteko lankidetzeta eta transformazio digitalarekin lotuta haiek dituzten jardueren koordinazioa nabarmentzen dira. Legeak lankidetzarako eta koordinaziorako esparru indartu bat aurreikusten du, finantza-sistemaren erakunde-arkitekturarentzako arauetan finkatutako eskumenen banaketa eta erabilera aldatu gabe. Hori guztia da bermerik onena erantzukizunak esleitzearen eta erabakiak hartzearen arteko korrespondentziaren printzipioa ez aldatzeko. Zehazki, proben gune kontrolatuaren, legean aurreikusitako gainerako neurrien eta oro har finantza-sistemaren transformazio digitalaren jarraipena egiteko eta gune hori eta neurri horiek sustatzeko, koordinazio-batzorde bat ezarri da, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusia buru duena. Batzorde horretan, kontrol-agintaritzen edo sektoreko beste instituzio batzuen ordezkariak parte hartuko dute.

Era berean, transformazio digitalaren testuinguruan finantza-jarduerak izaera transnazional nabarmena duenez, gomendagarria da agintari publikoen arteko nazioarteko lankidetzeta-mekanismoak aurreikustea, legean aurreikusitako tresnek dimentsio globala izan dezaten eta hala aukera gehiago izan daitezen aliantzak egiteko eta elkarrekin erantzuteko jarduteko gaitasun nazionala nabarmen gaititzen duten erronkei.

Bestalde, transformazio digitalak kultura-aldaketa bat eskatzen die eragile instituzional guztiei, baina, horrekin batera, beharrezkoak diren barne-berrantolaketak egin behar dira erlazio efizienteagoa lortzeko bitartekoen eta helburuen artean, eta legeak behar hori jasotzen du.

Gainera, legean bildutako xedapen multzoa dela eta, beharrezkoa da kontuak ematea, eta hori finantza-sistemaren transformazio digitalari buruzko urteko txosten baten bidez egin behar da, zeina argitaratu eta Gorte Nagusiei bidaliko baitaie. Txosten horretan, hobetzeko aukerak sartuko dira, legean aurreikusitako tresnak (proben gune kontrolatua, bereziki) abian jartzearen ondorioz identifikatutakoak. Eta hauei erreparatuko zaie: garapen teknologiko berriak, nazioarteko bilakaera, finantza-zerbitzuen bezeroen babesaren eta finantza-egonkortasunaren gaineko ondorioak, eta erregulazioan eta gainbegiratzeko zereginean hobekuntzak edo egokitzapenak behar dituzten alderdiak.

Azkenik, legeak bi xedapen gehigarri ditu. Lehenengoan, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiari ahalmena ematen dio eskabide-eredua ezartzeko, batetik, eta proben gune kontrolatura sartzeko eskabideak aurkezteko lehen data ezartzeko, bestetik; bigarrenean, berriz, ezartzen du legean jasotako aurreikuspenak aplikatzeak ez duela ekarri behar gastu publikoa handitzea. Lau azken xedapenak, berriz, hauei buruzkoak dira: proben helburua eta emaitzaren garapena, dagoen legedia eta

dagozkion prozedurak sinplifikatzeko; eskumen-titulua; erregelamendu-garapenerako gaikuntza, eta indarrean jartzea.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Xedea.*

Lege honek proben ingurune kontrolatu bat arautzen du, aukera emango duena finantza-sisteman proiektu teknologiko berritzaileak gauzatzeko, lege- eta gainbegiratze-esparruarekin guztiz bat etorrira, eta diskriminaziorik ezaren printzipioa errespetatuz betiere.

Gainera, transformazio digitalaren testuinguruan finantza-politikaren helburuak bermatzeko beharrezkoak diren tresnak indartzen ditu legeak. Horretarako, transformazio digitalak dakarrena hobeto ulertzen laguntzeko tresnak ematen dizkie agintaritzak eskudunei, finantza-sisteman aplikatu daitezkeen oinarri teknologikoko berrikuntzen sustatzaileei eta finantza-zerbitzuen erabiltzaileei, efizientzia eta zerbitzuen kalitatea areagotzeko eta, bereziki, arrisku teknologiko finantzario berrietatik hobeto babesteko eta seguruago ibiltzeko.

2. artikulua. *Eskumenak.*

Lege honetan aurreikusitakoak ez du inola ere ekarriko agintaritzak publikoari beren legedi espezifikoak esleitutako eskumenak aldatzea. Agintaritzak horiek, nolatan ere, elkarlanean aritzeko betebeharrak orokorra dute lege hau betetzeko eta beronen xedea lortzeko.

3. artikulua. *Definizioak.*

Titulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hona hemen nola ulertu behar diren termino hauek:

a) «Agintaritzak eskuduna». Altxorren eta Nazioarteko Finantzaketa Idazkaritza Nagusia, kontrol-agintaritzak eta indarrean dagoen legediaren arabera finantza-jardueraren gaineko eskumen espezifikoak dituen beste edozein agintaritzak.

b) «Kontrol-agintaritzak». Gaiaren arabera gainbegiratze-eginkizunak dituen finantza-agintaritzak nazionalak. Espainiako Bankua, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala eta Aseguruaren eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusia izan daitezke, lege eta artikulua hauetan xedatutakoaren arabera: 13/1994 Legea, ekainaren 1ekoa, Espainiako Bankuaren Autonomiari buruzkoa (7. artikulua); 4/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Balore Merkatuaren Legearen testu bategina onartzen duena (17. artikulua), eta 20/2015 Legea, uztailaren 14koa, Aseguru eta Berraseguru Entitateen Antolamendu, Gainbegiraketa eta Kaudimenarena (7. artikulua).

c) «Koordinazio-batzordea». Agintaritzak eskudunek osatutako batzordea, jarduerak koordinatzeko eskumena duena lege honen 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

d) «Proben gune kontrolatua». Proben ingurune kontrolatua eta mugatua, lege honen II. tituluak eta oinarri teknologikoa duen eta finantza-sisteman aplikatu daitezkeen finantza-berrikuntzako proba bat edo batzuk proiektu pilotu baten barruan egiteko babesa ematen duten protokoloak arautua.

e) «Oinarri teknologikoko berrikuntza, finantza-sisteman aplikatzeko». Ekintza bat edo ekintza multzo bat da, finantza-merkatuetan, finantza-zerbitzu eta zerbitzu osagarrietan edo finantza-esparruko funtzio publikoetan eragina duten aplikazio, prozesu, produktu edo negozio-eredu berriak ekar ditzakeena teknologiaren erabileraren bidez.

f) «Monitorea». Kontrol-agintaritzek proiektu bakoitzaren edo probaren baten jarraipena egiteko beren langileen artean izendatutako pertsona bakoitza. Ez du inola ere

erantzukizunik hartuko bere gain, sustatzaileak lege- edo kontratu-betebeharrak betetzen ez baditu.

g) «Parte-hartzailea». Lege honetan aurreikusitako informazio-dokumentu bakarra sinatu ondoren proba batean edo gehiagotan parte hartzea erabakitzen duen erabiltzaile bakoitza.

h) «Sustatzailea». Lege honetan aurreikusitakoaren arabera bere proiektu pilotua hasteko eskaera bakarka edo beste batzuekin batera egiten duen edozein pertsona fisiko edo juridikoa, barnean direla teknologia-enpresak, finantza-entitateak, kreditu-administratzaileak, interesak ordezkatzen dituzten elkarteak, ikerketa-zentro publiko edo pribatuak eta beste edozein interesdun.

i) «Protokoloa». Probak egiteko baldintzak biltzen dituen dokumentua. Sustatzaileak eta proiektuaren gaiaren arabera eskumena duten kontrol-agintaritzek sinatuko dute.

j) «Proiektu pilotua». Oinarri teknologikoko berrikuntza bat da, zeinaren gainean lege honetan aurreikusitakoaren babespeko proba esperimentalak egingo baitira, kontrol-agintaritzen jarraipenaren mende daudenak. Inola ere ez du ekarriko zerbitzu profesionala eta ohikoa ematea, eta ez da mugagabea izango.

k) «Proba». Proiektu pilotu baten barruan parte-hartzaileekin edo parte-hartzailerik gabe egiten den irismen mugatuko saiakuntza bakoitza.

II. TITULUA

Proben gune kontrolatua

I. KAPITULUA

Proben gune kontrolatuan sartzeko eta parte hartzeko araubide juridikoa

4. artikulua. *Probei aplikatu beharreko araubide juridikoa.*

1. Lege honek eta 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera onartutako proba-protokoloak xedatutakoari jarraituz egingo dira probak.

2. Titulu honetan arautzen den proben gune kontrolatura sartzekak edo proiektu pilotu baten barruan probak egiteak ez du inondik inora ere esan nahi jarduera erreserbatu batean aritzeko edo zerbitzu mugagabeak emateko baimena eman denik. Ondorioz, proiektu horien barruan proposatutako proiektu pilotuak eta probak ez dira egongo finantza-zerbitzuen ohiko prestazioari aplikatu beharreko legedi espezifikoaren mende, baina lege honetan eta dagokion protokoloan xedatutakoa bete beharko dute betiere.

3. Dagoeneko jarduera batean aritzeko baimena duten erakundeek parte hartzen baldin badute proiektu pilotuan, proiektu pilotuaren mugen barruan geratzen diren jarduerak bakarrik egongo dira aplikatzekoa den araudia betetzetik salbuetsita. Salbuespen hori ez da inola ere hedatuko proben gune kontrolatutik kanpoko ohiko jardueretara; horrek ez du esan nahi, hala ere, proportzionaltasun-printzipioa aztertu behar ez denik 19. artikuluan xedatutakoaren arabera.

4. Titulu honetan xedatutakoa aplikatzeko, gainbegiratze-arloko Espainiako agintariek kontuan hartuko dituzte finantza-gainbegiratzearen arloko Europako agintariek erraztaileei buruz identifikatutako gomendioak.

5. Titulu honetan xedatutakoari dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko interesdunek eskatuta hasitako prozedurei buruzko xedapenak aplikatuko dira.

5. artikulua. *Proben gune kontrolatura sartzeko baldintzak.*

1. Lege honen 3.h) artikuluko edozein pertsonak sustatutako proiektuak sar daitezke kapitulu honetan arautzen den proben gune kontrolatuan, baldin eta finantza-sisteman aplikagarria den oinarri teknologikoko berrikuntzaren bat ekartzen badute eta probatzeko behar bezain aurreratuta badaude.

2. Proiektua behar bezain aurreratuta dagoela irizteko, proiektuaren prototipoak gutxieneko funtzionalitate bat eskaini behar du bere baliagarritasuna egiaztatzeko eta, ondorioz, etorkizunean bideragarria izateko, nahiz eta funtzionalitate hori osatu gabe egon geroagoko bertsioekin alderatuta.

Gainera, proiektu berritzaileek ordura arteko erabilerei baliagarritasun potentzial bat edo balio erantsia ekarri beharko diete, 7. artikuluan xedatutakoaren arabera eta eskumena duten agintarien irizpide arrazoituaren arabera, honako alderdi hauetako batean gutxienez:

- a) Arauak betetzen laguntzea, prozesuak edo beste tresna batzuk hobetuz edo homogeneizatuz.
- b) Finantza-zerbitzuen erabiltzaileentzat behin-behinean onura bat izatea: kostuak murriztea, kalitatea hobetzea, finantza-zerbitzuak eskuratzeko eta eskuragarri izateko baldintzak hobetzea edo bezeroen babesa handitzea.
- c) Entitate edo merkatuen efizientzia handitzea. Edo
- d) Finantza-gainbegiratzearen erregulazioa hobetzeko edo hobeto gauzatzeko mekanismoak ematea.

3. Proiektu bati proben gune kontrolatuan sartzen utzi edo ez erabakitzeko, dena delako proiektuak Espainiako finantza-sisteman izan lezakeen eragina hartuko dute kontuan kontrol-agintaritzek.

4. Inola ere ezin izango da sartu proben gune kontrolatura proiektu bat, baldin eta haren sustatzaileak antzeko beste proiektu baten sustatzaile berak badira edo antzeko beste proiektu baten sustatzaileekin lotura juridiko nabarmena badute eta 16.1 artikuluari jarraituz beste proiektu horrek eteteko ebazpen arrazoitua jaso badu gune kontrolatura sartzeko eskabideak onartzeko Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiak 6.3 artikuluari jarraituz jartzen duen azken egunaren aurreko bi urteetan. Probak eteteko ebazpena ematen den egunean hasiko dira zenbatzen bi urteak.

Lotura juridiko nabarmena besteak beste honako hauek dutela iritziko zaio: administrazio- edo zuzendaritza-karguak dituzten pertsonen, haien taldeko sozietateek eta azken horietako administrazio- edo zuzendaritza-karguak dituzten pertsonen. Xedapen honen ondorioetarako, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan sozietate-taldeari ematen zaion definizioa aintzat hartuko da. Antzeko proiektutzat, era berean, antzeko xedea duena eta hartzaile berberentzat dena hartuko da.

5. Aurreko apartatuan aurreikusitakoaren salbuespen gisa, proiektuak sartu ahal izango dira proben gunean, haien sustatzaileek argi eta garbi frogatzen badute konpondu eta desagertu direla lege honen 16.1 artikulua bigarren paragrafoari jarraituz probak etetea eragin duten kausak.

6. artikulua. *Proben gune kontrolatura sartzeko eskabidea.*

1. Proben gune kontrolatura sartzeko eskabideak sustatzaileek aurkeztuko dituzte.
2. Proben gune kontrolatura sartzeko eskabideak Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiaren egoitza elektronikoan aurkeztuko dira. Hark, alde aurretik, eredu normalizatu bat onartuko du, nahitaez erabili beharrekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 66.6 artikuluan agindu bezala, eta egoitza horretan argitaratuko du. Eskabideekin batera, justifikazio-memoria bat aurkeztu beharko da. Memoria horretan, proiektua azalduko da, eta lege honen 5. artikuluan xedatutakoa betetzen dela zehaztuko da, bai eta, onartzeko gero, II. kapituluaren aurrekustean den bermeen eta parte-hartzaileen babesaren araubidea nola beteko den ere.
3. Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiak, sei hilean behin, eskabideak onartzeko epemuga bat jarriko du ebazpen bidez, eta bere egoitza elektronikoan argitaratuko du. Epemuga horren aurreko hogeita hamar egunen barruan aurkezten diren eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.

4. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 15. artikuluan hizkuntza ofizialei buruz agindutakoari jarraituz aurkeztu beharko dira eskabideak.

Ingelesez ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak, eta kasu horretan espedientea espainieraz izapidetuko da.

7. artikulua. *Aldez aurreko ebaluazioa.*

1. Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiak berehala helaraziko dizkie jasotako eskabideak proiektuaren gaiaren arabera eskudunak diren kontrol-agintaritzeari, artikuluan honen 2. apartatuan aurreikusitako ebaluazioa egin ahal izan dezaten eta horri buruzko txosten arrazoitu bakarria eman dezaten. Txosten arrazoitu bakarrean, proiektuaren aldeko edo kontrako kalifikazioa eman beharko da.

2. Lege honen 6.3 artikuluan aurreikusten den eskabideak onartzeko epea amaitu eta hurrengo hilabetean, kontrol-agintaritzek beren eskumen-eremuari eragiten dioten eskabideak ebaluatuko dituzte txosten arrazoitu baten bidez, eta ordura arteko erabilerei balio erantsia ematen dieten eta 5. artikuluan jarritako gainerako baldintzak betetzen dituzten proiektuen zerrenda bidaliko dute Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusira. Epe hori hilabete luzatu ahal izango da, hautagaitzen kopuruak edo prozeduren konplexutasunak hala agintzen duenean. Txostenak hauek jasoko ditu: sustatzailearen izena, proiektuaren edukiaren deskribapen labur bat eta proiektuak onura edo balio erantsia ekar dezakeen eremua. Aurkeztutako proiektuak kontrol-agintaritza baten baino gehiagoren eskumen-eremuari eragiten badio, txosten arrazoitu bakar bat eskatu beharko da, guztien artekoa, agintaritza eskudun guztien gogoetak bilduko dituena. Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiak informazio gehiago eska diezaioke sustatzaileari apartatu honetan aurreikusten den ebaluazioa egiteko.

3. 23. artikuluan aurreikusitako batzordea 2. apartatuko zerrenda jaso eta hamar egun igaro baino lehen bilduko da, aurretiazko ebaluazioen berri izateko. Bilera horren ondoren bost egun igaro baino lehen, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiak aldez aurreko aldeko ebaluazioa jaso duten proiektuen zerrenda argitaratuko du bere egoitza elektronikoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta, zerrendan, proiektu bakoitzaren gaiaren arabera jarraipenaz arduratuko den kontrol-agintaritza edo -agintaritzak adieraziko ditu. Era berean, ebaluazio hori behin-behinekoa dela adieraziko da, eta ez du ondorioz izango lege honen 8. artikuluan aurreikusitako protokoloa sinatu arte.

Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiak gonbita egin ahal izango dio, eta, hala badagokio, txostenak eskatu ahal izango dizkio, beste edozein agintariri, finantzez bestelako eremu sektorial batean eskumenak izan arren, proiektu pilotu batean edo bertan egin beharreko probaren batean behatzaile gisa parte hartzea komeni bada.

4. Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiak ebazpen arrazoitu eta berriazko baten bidez ezetsiko ditu eskaerak, baldin eta gaiaren arabera eskumena duen edozein kontrol-agintaritzak kontrako txostena eman badu artikuluan honen 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoari jarraituz. Txostenean, proiektu baten kontrako edukia 5. artikuluan xedatutakoaren arabera arrazoitu beharko da.

Halaber, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiak, arrazoiak emanez, eskaerak ez onartzea erabakiko du, baldin eta argi eta garbi oinarririk ez badute proben gune kontrolatuan sartzeko kasuez eta betekizunez 5. artikuluan ezarritakoari dagokionez, edo 6.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz onartutako eskabide-ereduaren arabera aurkezten ez badira.

Apartatu honetan aurreikusitako kasuetan, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiak ebazpena jakinaraziko die interesdunei, hura eman eta hamar eguneko epean, bitarteko elektronikoen bidez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 40. eta 43. artikuluetan xedatutakoari jarraituz. Nolanahi ere, 23. artikuluan aurreikusitako batzordeak ez badu izan

gainbegiratzailen aurretiazko ebaluazioen berri eskaerak onartzeko azken egunetik hiru hilabete igaro ondoren, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiak interesdunei jakinarazi beharko die beren eskaerak ezetsizat jo behar direla.

5. Artikulu honetan jasotako prozedurak amaitzeko ebazpenek amaiera emango diote administrazio-bideari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 114.1.g) artikuluan xedatutakoaren arabera. Aurka egiteko, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoari jarraituz; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 9., 45. eta 46. artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

8. artikulua. *Proben protokoloa.*

1. Proiektu batek aurretiazko aldeko ebaluazioa jasotzen duenean 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio hura argitaratu eta hiru hilabeteko epean, proba-protokolo bat sinatuko dute sustatzaileak eta artikulu horren 3. apartatuaren arabera eta bere eskumen materiala dela-eta proiektuaren jarraipenaren arduradun izendatu duten kontrol-agintaritzak edo -agintaritzek.

Epe hori igaro eta ez badute sinatu protokoloa, proiektua bertan behera geratuko da. Hala ere, aurreko paragrafoan aipatzen diren agintariek epe hori luzatu ahal izango dute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 32. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

2. Protokoloan, probatuko den proiektu pilotuak bete beharreko arauak eta baldintzak ezarriko dira, eta, besteak beste, honako gai hauek jasoko dira:

a) Erabiltzaileen eta eragiketen kopuruetan, eragiketa horien zenbatekoan eta probak egiteko denboran jarritako mugak.

b) Proben jarraipena lege honen 15. artikuluan xedatutakoaren arabera egiteko modua. Bereziki, agintariei emango zaien informazioa eta informazio hori eskuratzeko modua zehaztuko dira.

c) Proiektuaren faseak eta fase bakoitzean lortu beharreko helburuak, eta proba bakoitzaren irismena eta iraupena.

d) Sustatzaileak probak egiteko izan beharko dituen baliabideak.

e) Bermeen eta kalte-ordainen sistema oso bat, artikulu honen 3. apartatuan eta titulu honetako II. kapituluan aurreikusitakoaren arabera, eta, zehazki, 13. artikuluan agindutakoari jarraituz sustatzailearen erantzukizuna —halakorik badago— estaltzeko berme-araubide egokia.

f) Hala badagokio, konfidentzialtasun-klausulak, bai eta araudi espezifikoaren mende dauden xedapenak ere, probak egitean kaltetu litezkeen jabetza industrialeko eta intelektualeko eskubide edo enpresa-sekretuei buruzkoak.

g) Sustatzailearen iritziz edo proben jarraipenaren ardura duen agintaritzaren iritziz probak egiteko garrantzitsua izan daitekeen beste edozein gai.

3. Protokoloan, behar diren kautela guztiak ezarriko dira proba bakoitzean parte-hartzaileak babesteko sistema espezifiko bat bermatzeko, proiektuak duen arriskuaren neurrikoa, datuen babesaren, finantza-zerbitzuen erabiltzaileen babesaren eta kapitalen zuriaketaren eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioaren arloetan indarrean dagoen legedian ezarritako helburuen arabera. Era berean, behar adina kautela ezarriko dira probek finantza-egonkortasunari, finantza-merkatuen osotasunari edo probetan parte hartzen ez duten hirugarrenei ez diela eragingo bermatzeko.

Pertsona fisikoen datu pertsonalen tratamenduetan zorrotz beteko da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta datu pertsonalak babesteko gainerako arauetan xedatutakoa. Erregelamendu horrek

pertsona fisikoen babesa arautzen du, datu pertsonalen tratamenduari eta datuon zirkulazio askeari dagokienez.

4. Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiak protokoloen eredu adibideak edo protokolo horien edukiari buruzko orientabide orokorren adibideak argitaratu ahal izango ditu bere egoitza elektronikoan, baina ez dira lotesleak izango.

Gerora sortutako arrazoiengatik, protokoloak aldatu ahal izango dira aurreikuspenetako edozeinetan, dela kontrol-agintaritzek eskatuta, dela sustatzaileek eskatuta eta alde zuzenetik kontrol-agintaritzek oniritzia emanda, baldin eta aldaketa hori arrazoitua bada eta probak behar bezala egiteko lagungarria bada.

9. artikulua. *Proben hasiera.*

Lege honek agindutakoaren arabera proben protokoloa onartu ondoren, sustatzaileak parte-hartzaileen adostasun informatua eskatuko du eta aurreikusita dagoen bermeen eta kalte-ordainen sistema aktibatuko du. Alderdi horiek jarraipena egiteko ardura duen kontrol-agintaritzaren aurrean egiaztatu ondoren —agintaritza horri 10. artikuluan aurreikusten den informazio-dokumentu bakarraren berri emango zaio—, proiektu pilotua osatzen duten probak hasi ahal izango dira, protokoloan jasotako baldintzen arabera eta lege honek agindutakoari jarraituz.

II. KAPITULUA

Bermeen, parte-hartzaileen babesaren eta proben jarraipenaren araubidea

10. artikulua. *Adostasun informatua eta datuen babesa.*

1. Lege honetan aurreikusitako probaren batean parte hartzekoak diren guztiek idatziz onartu beharko dituzte parte hartzeko baldintzak. Horretarako, sustatzaileak informazio-dokumentu bakar bat emango die, zeinaren eredia kontrol-agintaritzak onartu beharko baitu. Dokumentuan, probetan parte hartzeko gonbita egingo zaie, eta honako hauek zehaztuko dira:

a) Haietan parte hartzearen izaera, proba-izaera, inplikazioak, arriskuak eta erantzukizunak, eta, bereziki, protokoloan ezarritako berme-araubidea, 12. eta 13. artikuluetan agindutakoari jarraituz sustatzailearen erantzukizuna estaltzekoa.

b) Atzera egiteko araubidea, 11. artikuluan eta probak arautzen dituen protokoloan agindutakoaren arabera.

c) Probak egitean haien datu pertsonalak tratatzeko modua eta datu pertsonalak babestearen alorrean haiek dituzten eskubideak, indarrean dagoen legediak agindutakoari jarraituz.

d) Hala badagokio, probetan parte hartzearen ondorioz lortutako informazioaren izaera konfidentziala, bai eta araudi espezifikokoari lotutako xedapenak ere, probak egin bitartean kalte litezkeen jabetza industrialeko eta intelektualeko eskubideei edo enpresa-sekretuei buruzkoak.

e) 16. artikuluko etendura-araubidea.

Informazio hori hizkera erraz batean, ulergarrian eta parte-hartzaileak ere ulertzeko moduan idatzi beharko da.

2. Parte-hartzaileek aurreko apartatuko informazio-dokumentu bakarra sinatuz adieraziko dute beren borondatez parte hartu nahi dutela probetan. Ahal dela, elektronikoki egingo dute hori, kontrol-agintaritza arduradunak jarraipena egiteko onartutako formatu batean.

Beren datu pertsonalak tratatzeko adostasuna ere agertu beharko dute dokumentu horretan.

3. Informazio-dokumentuan ezarri ahal izango da ezen parte-hartzaileek onartutako erantzukizunak eta, bereziki, hitzartutako konfidentzialtasun-betebeharrak betetzen ez

badituzte utzi egingo diotela probetan parte hartzeari, eta bestelako erantzukizunak ere aurreikusi ahal izango dira.

11. artikulua. *Atzera egiteko eskubidea.*

1. Parte-hartzaileak beti izango du eskubidea proba batean parte hartzeari uzteko, proben protokoloan eta 10. artikuluko dokumentu bakarrean jasotako atzera egiteko araubidearen arabera.

2. Parte-hartzaile batek atzera egiteak inoiz ez dio eskubiderik emango proben sustatzaileari kalte-ordainak eta konpentsazioak jasotzeko.

3. Datu pertsonalak tratatzeko adostasuna kentzeak ez du eraginik izango aurretik agertutako adostasunean oinarritutako tratamenduaren zilegitasunean.

4. Parte-hartzaileak, proban parte hartzeari uzten badio, konfidentzialtasun-betebeharraren pean jarraituko du, protokoloan bertan jarritako baldintzetan.

12. artikulua. *Erantzukizuna.*

1. Soilik sustatzaileak izango du probetan parte hartzearen ondorioz parte-hartzaileek jasandako kalteen erantzukizuna, baldin eta hark protokoloa ez betetzeagatik gertatu badira, hark jakinarazi gabeko arriskuetatik etorri badira edo haren errua edo zabarkeria tartean izan bada. Probak egiten diren bitartean kalteak izaten badira akats tekniko edo giza akatsen ondorioz, haien erantzukizuna ere sustatzaileak izango du.

Probak egiten diren bitartean esku hartzen duten agintariak ez dira izango sortzen diren kalte-galeren erantzule.

2. Ez dira kaltetzat hartuko merkatuen fluktuazioaren ondoriozko galerak, dagokion protokoloan kasu bakoitzerako ezarritakoaren arabera.

3. Parte-hartzaileei ondare-galerak eta beren parte-hartzetik zuzenean etorritako beste kalte batzuk ordainduko zaizkie, protokoloan ezarritako araubidearen arabera, baldin eta, artikulua honetan xedatutakoari jarraituz, sustatzailea bada sortutako kaltearen erantzulea.

4. Protokoloan, ezin izango da inola ere aurreikusi Administrazioak sustatzaileari proben gune kontrolatuan parte hartzearen ondoriozko ondare-galerak ordaindu behar dizkiola.

13. artikulua. *Kalteengatiko bermeak.*

Probak hasteko unean, sustatzaileek finantza-bermeak izango dituzte, protokoloan ezarritakoaren arabera, aurreko artikuluan aurreikusitakoaren arabera eragiten dituzten kalte-galerei erantzuteko. Berme horiek arriskuen neurrikoak izango dira, eta, besteak beste, aseguruaren, banku-abalen edo fidantzen bidez formalizatu ahal izango dira.

14. artikulua. *Konfidentzialtasunaren bermeak.*

1. Lege honek 8. artikuluan aurreikusitako protokoloan, konfidentzialtasunari eta enpresa-sekretuari buruzko klausulak sartu ahal izango dira, bai eta araudi espezifikoaren mendeko xedapenak ere, probak egitean kaltetu litezkeen jabetza industrialeko eta intelektualeko eskubideei edo enpresa-sekretuei buruzkoak.

Halaber, 10. artikuluan aurreikusitako informazio-dokumentu bakarrean, konfidentzialtasun-klausulak sartu ahal izango dira probetan parte hartzeagatik eskura daitekeen informazioari dagokionez.

2. II. titulu honetan aurreikusitako probetan edo 23. artikuluko batzordean agintaritzaren aldetik parte hartzen duten langileek sekretua gordetzeko eta zuhurtasunez jokatzeko betebeharrak izango dituzte, Enplegatutako Publikoaren Oinarritako Estatutuaren Legearen testu bateginaren 53.12 artikuluan agindutakoari jarraituz (testu bategin hori urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen), eta ezin izango dute erabili lortutako informazioa norberaren edo hirugarren batzuen mesedetan edo

interes publikoaren kaltean. Kontrol-agintaritzetako langileak, zehazki, beren lanbide-sekretuaren araubidearen mende egongo dira beti.

15. artikulua. *Proben jarraipena.*

1. Lege honek 7.3 artikuluan agindutakoaren arabera eta gaiaren arabera proiektuaren jarraipenaren arduradun izendatu den kontrol-agintaritzak monitore bat edo batzuk izendatuko ditu proiektu pilotua osatzen duten proben jarraipena egiteko. Nolanahi ere, 12. artikuluan xedatutakoa bete beharko da, lege honetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan aurreikusitakoa betetzeko eta proben protokoloaren baldintzak betetzeko sustatzaileak duen erantzukizun eksklusiboari dagokionez.

Proben protokoloa kontrol-agintaritzak batek baino gehiagok sinatu badute, guztiek ere monitore bat edo batzuk izendatuko dituzte, artikulua honetan agindutakoa betetzeko. 22. artikuluan agindutakoari jarraituz, koordinazio-jarraibideak ezarriko dira proben jarraipena egingo duten agintarien artean. Nolanahi ere, dagozkien eskumenen kalterik gabe, proben koordinatzaile bat izendatuko da kontrol-agintaritzak horien artean, probak egiten diren bitartean jarraipena eta elkarrizketa errazteko.

2. Probak egiten diren bitartean, etengabeko elkarrizketa ezarriko da sustatzailearen eta jarraipenaren ardura duen agintaritzaren artean. Agintaritzak horrek adierazpen idatziak egin ahal izango ditu protokoloan eta lege honetan xedatutakoa betetzeko. Agintaritzak arduradunak, era berean, protokoloan aldaketak egiteko eskatu ahal izango du idazki arrazoitu baten bidez. Idazki horretan, arrazoitu egin beharko da aldaketa horiek beharrezkoak direla probak behar bezala egiteko, eta sustatzaileak ados egon beharko du aldaketa horiek egiteko.

3. Horretaz gainera, jarraipenaz arduratzen den agintaritzak, bere eskumenen esparruan, lege honetan eta dagokion proba-protokoloan xedatutakoa aplikatzen dela egiaztatuko du. Horretarako, egokitzat jotzen duen informazio guztia eskatu ahal izango du, une jakin batean edo aldi behin, eta ikuskapenak edo beste ekintza batzuk egin ahal izango ditu lege hau eta proben protokoloa betetzeko.

4. Lege honetan edo dagokion protokoloan xedatutakoa betetzen ez bada, probak eten egingo dira, 16.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Halaber, pertsona fisikoek eta juridikoek, bai eta haietan administrazio- edo zuzendaritza-karguak dituztenek ere, ez-betetze horren ondorioz antolamendu- edo diziiplina-arauak urratzen badituzte, administrazio-erantzukizun zehagarria izango dute, Aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren uztailaren 14ko 20/2015 Legean, Kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren ekainaren 26ko 10/2014 Legean, Balore Merkatuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko Legegintzako Errege Dekretuan eta finantza-merkatuetan parte hartzen duten subjektuei aplikatu beharreko gainerako legedian xedatutakoaren arabera.

16. artikulua. *Probak etetea.*

1. Prozesuaren edozein unetan, proiektu pilotua edo edozein proba bertan behera utzi ahal izango da, edo amaitutzat eman, jarraipenaz arduratzen den agintaritzaren ebazpen baten bidez, arrazoituta, baldin eta 4. artikuluan xedatutakoaren arabera probetan aplikatzekoa den araubide juridikoa edo probak egitean sustatzaileak fede onez jokatzeko duen betebeharra betetzen ez badira.

Halaber, proiektu pilotua edo edozein proba bertan behera utzi ahal izango da, edo amaitutzat jo, baldin eta jarraipenaz arduratzen den agintaritzak akats nabarmenak edo behin baino gehiagotan gertatzen diren akatsak ikusten baditu edo finantza-egonkortasunerako, finantza-merkatuen osotasunerako edo bezeroen babeserako arriskuak ikusten baditu.

Aurreko paragrafoetan aurreikusitako kasuetan, proiektu pilotua edo probak eteteko ebazpen arrazoituak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta ebazpen horren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren

1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 9., 45. eta 46. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

2. Sustatzaileek proiektu pilotua edo beste edozein proba eten edo amaitutzat eman ahal izango dute, arrazoituta, arrazoi tekniko edo estrategikoengatik edo probekin aurrera egitea eragozten duen beste edozein arrazoiengatik, edo, 8. artikuluko protokoloan aurreikusitakoaren arabera, proba horietarako jarritako helburuak lortu direnean. Kasu horietan, sustatzaileak probak arrazoituta eteteak ez die eskubiderik emango parte-hartzaileei kalte-ordainak jasotzeko, etete horren ondorioz zuzenean kalte ekonomikoak izan ezean.

III. KAPITULUA

Irteera-araubidea, eta probak egin ondorengo ondorioak

17. artikulua. *Emaitzen azterketa.*

1. Probak amaitu ondoren, sustatzaileak memoria bat egingo du, proben eta proiektu pilotu osoaren emaitzak ebaluatzeko, eta proben jarraipena egin duen kontrol-agintaritzari igorriko dio, hilabeteko epean, eta hark, berandutu gabe, lege honen 23. artikuluan aurreikusitako koordinazio-batzordearen esparruan zabalduko du.

Protokoloan, memoria horrek proiektu pilotu bakoitzerako izango duen gutxieneko informazioa ezarriko da. Informazio horren konfidentzialtasuna une oro bermatuko da, 8. eta 14. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

2. Sustatzaileak, beste proba batzuk edo proba osagarriak egitea komeni dela uste badu emaitzak aztertu ondoren, protokoloa aldatzeko eta proiektuaren iraupena luzatzeko eskatu ahal izango dio jarraipena egiteko ardura izan duen agintaritzari.

3. Proben jarraipena egiteko ardura izan duen agintaritzak proben garapenari eta emaitzei buruzko ondorioen dokumentu bat egingo du. Ondorio horiek kontuan hartuko dira 25. eta 26. artikuluetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, eta jabetza industrialari edo intelektualari dagokionez beharrezkoak diren erreserbekin argitaratuko dira.

18. artikulua. *Jarduerari ekiteko bidea.*

1. Proiektu pilotua amaitutakoan edo hura protokoloan xedatutakoaren arabera garatzen den bitartean, sustatzaileak baimena eskatu ahal izango du jarduerari ekiteko —jarduera horretan ez badabil— edo hura zabaltzeko.

2. Gune kontrolatuan probatu den oinarri teknologikoko berrikuntza baten bidez nagusiki gauzatu nahi den jarduera batean aritzeko baimena behar den kasuetan, prozeduraren epeak murriztu ahal izango dira, proiektu bakoitzaren berezitasunei erreparatuz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 33. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, baldin eta, baimena emateko eskumena duten agintarien iritziz, probak egitean eskuratutako informazioak eta jakintzak aukera ematen badute modu sinplifikatuan aztertze indarrean dagoen legediak jarritako baldintzak betetzen direla. Nolanahi ere, baimena emateko eskumena duen agintaritzak 19.1 artikuluan aipatzen den haztapena egingo du.

III. TITULUA

Beste neurri batzuk

19. artikulua. *Proporzionaltasuna.*

1. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 4. artikuluan agindutakoari jarraituz, hazta daitezkeen betekizunak eskatzen direnean

finantza-jarduera batean aritzeko, baimena emateko eskumena duten agintariek proportzionaltasun-printzipioa aplikatuz egingo dute haztapen hori. Haztapen hori arrazoitua izango da, eta, bertan, kontuan hartu ahal izango dira arlo honetan eskumenak dituzten Europako agintariek baimentzeetarako ezarritako gidalerroak.

2. Kontrol-agintaritzek kontuan hartuko dituzte lege honen II. tituluan jasotako proben garapena eta emaitza, antzeko kasuetan neurri baliokideak modu arrazoituan eta proportzionaltasun-printzipioaren arabera aplikatzeko, aplikatzekoa den legedi espezifikoaren arabera gainbegiratzeko jardueran duten diskrezionalitatearen barruan. Jardun diskrezionalaren tarte horren barruan proportzionaltasuna aplikatzean, kontuan hartuko dituzte gainbegiratze-eskumenak dituzten Europako agintaritzetatik datozen gainbegiratze-jardunbide egokiei buruzko gidalerroak, gomendioak eta irizpideak.

3. II. tituluan aurreikusitakoaren arabera araututako proben garapena eta emaitza kontuan hartuko dira lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran, Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legeak 26.1 artikuluan agindutakoa betetzeko. Era berean, legegintza- eta erregelamendu-ekimenean eta arau-ebaluazioan jardueren eta arriskuen arteko proportzionaltasun-printzipioa haztatzean teknologia berrien aplikazioak duen eragina baloratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 129. eta 130. artikuluetan agindutakoari jarraituz.

4. 25. artikulua agintzen duen urteko txostenean, proportzionaltasunari buruzko atal espezifiko batean, aurreko apartatuetan xedatutakoari buruzko informazio garrantzitsua sartuko da.

20. artikulua. *Komunikazio-bide espezifikoak.*

1. Kontrol-agintaritzek zuzeneko komunikazioko bide espezifikoak ezarriko dituzte finantza-zerbitzuei aplikatutako berrikuntza teknologikoarekin lotutako aplikazio berriei, prozesuei, produktuei, negozio-ereduei eta beste gai batzuei buruzko kontsultei erantzuteko.

2. Kontrol-agintaritzak elkarren artean koordinatuko dira jasotako kontsultei erantzuteko. Era berean, lege honetan xedatutakoari buruzko informazioa jasoko dute beren webgunean, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzetaren Idazkaritza Nagusiaren egoitza elektronikorako esteka bat barne, lege honen 6. artikuluan xedatutakoarekin lotutako informazioa eskuratzen laguntzeko.

21. artikulua. *Kontsulta idatziak.*

1. Edozein interesdunek kontsulta idatziak egin ahal izango dizkio kontrol-agintaritzari sektoreko finantza-araudiaren araubideari, sailkapenari edo aplikazioari buruz, finantza-zerbitzuen prestazioan teknologia aplikatzeko kasu batekin lotuta badago araudi hori. Kontsultak baliabide elektronikoen bitartez egingo dira.

2. Kontsultetan, aplikatzekoa den araudiak sortzen dizkion zalantzak jasoko dira, eta teknologia finantza-zerbitzuen prestazioan aplikatzearekin duen lotura, bai eta agintaritza eskudunari iritzi bat eratzten lagun diezaioketen gainerako datu eta elementuak ere.

3. Kontsulta idatziei lehenbailehen erantzun beharko zaie, eta, betiere, haiek erregistratzen direnetik bi hilabete igaro baino lehen. Dagozkion arauak aplikatu behar dituzten Administrazioiko organo eta entitateentzat ondorio lotesleak izango ditu berariazko legedian hala ezartzen denean. Jarritako epean erantzunik ez emateak ez du esan nahi egindako kontsultari baiezko erantzuna eman zaionik.

4. Kontsultei emandako erantzuna interesdunak informatzeko izango da, eta ezin izango da inolako errekurtsorik jarri haren aurka.

5. Kontsultak aurkezteak eta haiei erantzuteak ez du ekarriko administrazio-prozeduretan jarritako epeak etetea.

6. Agintariek kontsulta idatziekin lotuta dauden gai garrantzitsuenak jakinaraziko dizkiote 23. artikuluan aipatzen den batzordeari, beste agintaritza eskudun batzuetan eragina izan lezaketenean bereziki.

IV. TITULUA

Instituzioei buruzko xedapenak, eta kontuak ematea

I. KAPITULUA

Instituzioei buruzko xedapenak

22. artikulua. *Agintarien arteko lankidetzaz, eta eskumenak baliatzea.*

1. Arlo honetan eskumenak dituzten agintaritzak publikoek lankidetzan jardungo dute, finantza-sistemaren transformazio digitala lege honetan xedatutakoaren arabera, finantza-egonkortasunerako eta bezeroen babeserako berme guztiekin eta finantza-politikaren gainerako printzipio informatzaileei jarraituz egiten dela bermatzeko.

2. Agintaritzak publikoek lankidetzan jardungo dute II. tituluaren aurreikusten den proben gune kontrolatuak behar bezala funtzionatzea lortzeko, eta, beren eskumenen esparruan eta berme egokiekin, erraztasunak emango dituzte probak egiteko. Agintaritzak batek baino gehiagok elkarrekin parte hartzen badute proiektu baten jarraipena egiteko zereginen protokoloan ezarritakoaren arabera, koordinazio-jarraibideak ezarriko dituzte beren artean.

3. Proba batzuk egiteko beharrezkoa denean, nazioarteko lankidetzarako mekanismoak ezarri ahal izango dira agintaritzak publikoen artean, lege honetan aurreikusitako tresnak optimizatzeko modua ematen dutenak proben gune kontrolatuekiko eta Espainiakoa ez den jurisdikzioetan garatutako beste erraztaile teknologiko batzuekiko interakzioaren bidez. Zehazki, hitzarmenak egin ahal izango dira Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2.d) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

23. artikulua. *Koordinazio Batzordea.*

1. Lege hau indarrean jarri eta hiru hilabete igaro baino lehen, batzorde bat eratuko da bertan egitekoak diren jarduerak koordinatzeko.

2. Besteak beste, lege honen II. tituluaren aurreikusten den proben gune kontrolatuari dagokionez, batzorde horrek egiteko hauek izango ditu:

a) Aurkeztutako eskabideen, haien gainean aurretiaz egindako ebaluazioaren, protokoloen onarpenaren eta emaitza-ebaluazioen berri izatea.

b) Proben emaitzak ebaluatzeko memoriaren edukiak ezagutzea eta haietaz eztabaidatzea.

c) Protokoloen edukiari buruzko ezagutza trukitzea, ahal denean jarraibide homogeneoak ezartzeko.

d) Lege honetan eta bereziki 7.4, 16.1 eta 18. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera hartutako erabakien oinarri diren arrazoiak ezagutzea.

e) Proben gune kontrolatuaren funtzionamendu orokorrari edo proiektu pilotuen garapen zehatzari buruzko beste edozein alderdi garrantzitsuren berri izatea.

f) Kontrol-agintaritzen eta —hala dagokionean— gainerako agintaritzak eskudunen parte-hartzea bermatzea eta koordinazioa erraztea.

3. Era berean, Koordinazio Batzordeak honako egiteko hauek izango ditu:

a) 19. artikuluan proportzionaltasun-printzipioaz xedatutakoari buruz eztabaidatzea.

b) Bertan dauden agintaritzen jardueraren berri izatea, 20. eta 21. artikuluetan xedatutakoari dagokionez.

c) Finantza-eremuari aplikatutako berrikuntza teknologikoaren garapenei buruzko informazio orokorra elkarri ematea batzordekideek.

4. Batzorde hori hiru hilean behin bilduko da gutxienez, eta kontrol-agintaritzen ordezkariak hartuko dute parte bertan. Sektoreko beste instituzio batzuetako ordezkariak ere parte hartu ahal izango dute, Altxorren eta Nazioarteko Finantzaketa Idazkaritza Nagusiak hala proposatzen duenean. Ahalegina egingo da ordezkariak orekatua izan

dadin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legearen 54. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri. Lehendakaria Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiko ordezkari bat izango da.

5. Batzordearen bilera irekietarako deialdiak egin ahal izango dira. Bilera horietan, besteak beste, adituek eta entitateen edo kontsumitzaileen elkarrekin interesen ordezkariak parte hartu ahal izango dute, lege honetan aurreikusten den proben gune kontrolatuaren funtzionamendu orokorra hobetzeko edo transformazio digitalak finantza-sistemara berekin zer dakarren hobeto ezagutzeko. Bilera horiek, baina, artikuluko honen 2. eta 3. apartatueta batzordeari esleitutako eginkizunekin zerikusia duten gaiak aztertzeke bileretatik bereizita egingo dira.

24. artikulua. *Baliabide materialak eta giza baliabideak.*

Agintari eskudunek, lege honetan xedatutakoa betetzeko, egokitzat jotzen dituzten bitarteko materialak eta langileak jarriko dituzte, eta beren araubide juridikoaren arabera erabaki ahal izango dute aurreko helburuetarako egokiena den barne-antolamenduaren ereduari buruz, beren berezitasunen eta esleituak dituzten eskumenen arabera.

II. KAPITULUA

Kontuak ematea

25. artikulua. *Finantza-sistemaren transformazio digitalari buruzko urteko txostena.*

1. Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiak urteko txosten bat egingo du finantza-sistemaren transformazio digitalari buruz. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak Gorte Nagusiei igorriko die txostena, eta webgunean argitaratuko da, ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoan.

2. Txosten horretan, besteak beste, alderdi hauek hartuko dira kontuan: garapen teknologiko berriak, nazioarteko bilakaera, finantza-zerbitzuen bezeroen babesaren gaineko eraginak, finantza-egonkortasuna eta merkatu-egitura, transformazio digitalak genero-berdintasunean dituen inplikazioak, bai eta finantza-erregulazioan eta -gainbegiratzean hobekuntzak edo egokitzapenak behar lituzketen alderdiak ere.

Txostenean, gainerako edukietatik bereizitako atal batean, laburpen bat egingo da herritartasun digitalean hezkuntza sustatzeko asmoz finantza-arloan aurrera eramán diren jardueri buruz; bereziki, teknologia berrien erabilera arduratsua sustatzeko jardueri buruz.

3. Era berean, finantza-sistemaren transformazio digitalari buruzko urteko txostenean, kontuak emango dira lege honen II. tituluaren arabera egindako probei buruz, kontrol-agintaritzek eta proba horietan esku hartzen duten beste agintaritzak batzuek bidalitako informazioaren arabera. Txostenean, bereziki, 19. artikuluan xedatutakoa aintzat hartuko da, eta, txostena webgunean argitaratzen bada, webgunean ez da jasoko 14. artikuluko konfidentzialtasun-betebeharraren mendean dagoen informazioa; ganberetako kideek bete egin beharko dute 14. artikuluko konfidentzialtasun-betebehar hori konstituzio-funtzioak betetzean.

4. Horretaz gainera, proben gune kontrolatua aurrera eramandako proiektu esperimentalen emaitzetatik eratorritako gomendio arautzaileak bilduko ditu txostenak. Legegintza finantza-sektoreko berrikuntza digitaletara egokitzea izan behar da gomendio horien helburua, lege honen 5.2 artikuluan jasotako kasuak betetzeko baliagarriak izan diren horietara egokitzea zehazki, premiaren, efikaziaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioekin bat etorri.

26. artikulua. *Finantza-oinarriko berrikuntza teknologikoa kontrol-funtzioan aplikatzeari buruzko txostena.*

Lege honen 3.b) artikuluan aurreikusitako kontrol-agintaritzek, urteko memorian, txosten bat sartuko dute beren gainbegiratzeko-funtzioei oinarri teknologikoko berrikuntza

aplikatzeari buruz. Zehazki, txosten horretan, ebaluazio bat jasoko da lege honetan arautzen den proben gune kontrolatuan probatu diren eta gainbegiratze-funtzioa hobeto betetzeko aplikatu daitezkeen berrikuntzak ezartzeari buruz.

Txostenaren edukian, nolana ere, proiektuen konfidentzialtasun-printzipioa beteko da, sustatzaileak berariaz baimena eman ezean.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Proben gune kontrolatuan sartzeko eskabide-eredua eta eskabideak aurkezteko lehen data finkatzea.*

Lege hau indarrean jarri eta hilabeteko epean, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiak 6. artikuluan aipatzen diren eskabide-eredua eta epemuga onartuko ditu.

Bigarren xedapen gehigarria. *Gastu publikoa ez handitzea.*

Lege honetako aurreikuspenek ezin izango dute ekarri gastu publikoa handitzea.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Proben helburua eta emaitza.*

Proben garapena eta emaitza kontuan hartuko dira indarrean dagoen legedia sinplifikatzeko, beharrezkoak ez diren oztopoak eta bikoiztasunak ezabatzeko, prozedura arinagoak ezartzeko eta finantza-entitateek dituzten administrazio-kargak minimizatzen, hori guztia jarduera ekonomikoetarako arau-esparru efiziente bat bultzatzen jarraitzeko asmoarekin.

Azken xedapenetako bigarrena. *Eskumen-tituluak.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 6., 11. eta 13. arauetan xedatutakoarekin bat etorri ematen da; artikuluko horrek Estatuari eskumen eskusiboa esleitzen dio merkataritzako legediari, kredituak, bankuak eta aseguruak antolatzen oinarri eta ekonomia-jardueraren plangintza orokorraren oinarri eta koordinazioari buruz, hurrenez hurren.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Erregelamendu bidezko garapenerako gaikuntza.*

Gobernuak beharrezkoak diren erregelamenduzko arauak eman ditzake lege honetan xedatutakoa garatzeko.

Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroari ahalmena ematen zaio, bere eskumenen esparruan, II. tituluan arautzen den proben gune kontrolatuaren antolamendu- edo prozedura-alderdiei buruzko xedapenak emateko gunearen funtzionamenduak xedapen horiek beharrezkoak direla erakutsi duenean, bai eta 23. artikuluan aurreikusitakoa garatzeko ere.

Azken xedapenetako laugarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Horrenbestez,

Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikularrei zein agintariei.

Madriren, 2020ko azaroaren 13an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN